INGENIARITZA ELEKTRIKOA. ORAINA ETA ETORKIZUNA

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Gipuzkoa
- **Ikastegi antolatzailea:** Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia)
- **Gradua:** Ingeniaritza Elektrikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Europa plaza, 1. Donostia (Gipuzkoa)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Proiektu honen helburua industria ingeniaritzan interesatuta dauden ikasleengana gerturatzea da. Ingeniaritza Elektrikoko graduari buruzko azalpenak emango zaizkie, graduaren ikasketa-planaren ezaugarriak jakinarazteaz gain, etorkizuneko erronkak ezagutaraziz (sorkuntza banandua, ibilgailu elektrikoa, energia berriztagarriak, metaketa sistemak, etab.), bai eta ikasketak amaitu ondoren izango dituzten lan-irteera profesionalei buruzko informazioa ere.

2. LANDUKO DIREN GAIAK/EDUKIAK

- Ingeniaritza Elektrikoko gradua: ikasketa-plana, praktikak eta laborategiak.
- Ingeniaritza Elektrikoaren etorkizuneko erronkak.
- Lan-irteerak/irteera profesionalak.
- Eskolaren harremanak lan-eremuarekin: bisitak ikasketetan zehar, inguruko enpresetan borondatezko praktikak eta Graduaren Amaierako Lana egiteko aukera.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

- Ikasketa-planaren eta titulazioaren lan-irteeren aurkezpena.
- Ingeniaritza Elektrikoko graduko ikasle-ohi edo/eta ikasle batekin taldeko elkarrizketa egingo da, bere ikasketa-bizikizunak eta laneko esperientzia azalduko dituelarik.
- Laborategiak erakutsiko zaizkie eta zenbait jarduera praktiko egiteko aukera emango zaie.
- Irakasgai batzuen eta gradu amaierako lanen adibide praktikoak erakutsiko dira.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2027-01-25	Euskara	Goizez	11:00-13:00	16
2027-01-25	Gaztelania	Goizez	11:00-13:00	16
2027-01-25	Euskara	Arratsaldez	15:00-17:00	16
2027-01-25	Gaztelania	Arratsaldez	15:00-17:00	16